

PERU NAPARRA

NAPARROA'REN ZORI TXARRA

Santxo azkarra 1234garrenean, seme-alaba barik il zan.

Eta Aragoe ta Pran izi txakur amurratu bi orrein jaki gozoa biurtu zan, andik aurrera, Naparroa gaixoa.

Eta bi zakur orrein ainbat aginkaden ondoren, Aragoi'ko errege Fernando'k kendu eutson bizia, azkenik, 1512'garreneko eraso zital aren bidez.

* * *

PERU NAPARRA, TA ERREGE KATOLIKOA

Albret'eko Juan zan, orduan, Naparroan errege; eta ba eban, aurretik, Fernando'ren asmo zitalen susmorik. Eta bere mariskal zan Peru naparra bidaldu eban Fernando'rengana, onen asmoen garbitasunak eskatzera.

Eta onek, Prantziakin gerran egoala, ta araiño bere mutillak Naparroan zear joateko, baimena eskatu eutson.

An eukala ortarako aren menpean egoan Irungo Pausoa, erantzun eutson Peru'k; aren inguruko Pasai' ko kaian eukazala zain aren lagun Ingelesak.

* * *

NAPARROA MENPERATUA

Andik egun batzuetara, or sartzen dira Gaztelarrak Naparroa'ko lurraldean Alsasua'tik aurrera, ta Iruña' ra alderatu Burunda ta Sakana igaro ondoren.

Naparrak alakorik uste ez, eta arei eutsiteko indarrik be ez, eta Iruña'tik Lumbier'eko urira joan zan iges bertako erregea bere mutil zintzoakin, andik gogor egiteko asmotan.

Baiña ezin gogor egin. Beste gudaroste bi sartu ziran Naparroa'ra Logroño ta Aragoe aldetik. Ez zan Prantzia'tik aginduriko laguntzarik be eldu. Eta Auñamendi'ko beste aldera jo eban erregeak bere lagunakin.

PERU NAPARRA, ATXILLO

Naparroa artu, eta aztu yaken Gaztelarrai Prantzi'ko gerra ta gerrakoak. Naparrak, orduan, Prantziarrakin bat egin, eta Iruña'ra abiatu ziran su ta ke. Prantziarrak baiña nagi ta oker jokatu, ta mugatik beste aldera jo bear izan eban barriro Peru'k bere lagunakaz.

Andik lau urtera Gaztelako Fernando ori il, eta Peru naparra Prantziarren laguntzaren begira egon barik, barriro sartu zan Naparroa'n bere mutillakaz. Erronkal bazterretik sartu ere.

An egokion zain Villalva gudaburu zitala bere mutil ugariak inguraturik, bertako atxetan gordeta; eta aren gaiñera itsupustuan jausirik, naparrak ondatu zituan, eta Peru ta aren lagun beiñenak atxillo artu.

PERU NAPARRAREN ERIOTZA

Gaztelako Atientza baitegian sartu zituen napar zintzoak, eta katez loturik an ertsu ta estu gorde. Andik illabete batzutara Peru'ren lagunak askatu zituen, ez baiña arein buru zan Peru Naparra.

Andik urte bira, Karlos Gaztela'ko errege barriaren izenean agindu eutsen Peru'ri, Naparroa'ko erregea esetsi, ta Gaztelako errege barriari makurtzen bajakon, etxera bidalduko ebela, bere lengo izen, ondasun eta izan beragaz.

Peru'k ezetz eta ezetz, eta Simankas'ko baitegi gogorrera aldatu eben Naparroa'ko seme zintzoa, eta an len baiño gogorrako artu.

Andik lau urtera, Naparroa'ko mutillak barriro asaldu ziran, Naparroa'ko Batzarraren buru zan Yatsu'ko Juanen seme ta Xabier'eko San Prantziz-koren anaiak buruzagi zirala. Eta areik Ondarrabi'n gogor zengozen bitartean, Peru naparra jatorrari samea ebagi eutsoen, gauaz eta ixillik, Simankas'ko presondegian.

URKIOLA. k

EUSKERA GAUZARIK NAGUSIENA



EUSKERA, GAUZARIK NAGUSIENA

(Ipuñen eta idaz-lanen sariketean)

Deustu'ko ikastolea asmatzaille eta Izkuntza-Eskolako irakasle diran Alfonso Irigoyen eta Jabier Uriarte laguntzaille dirala, umeentzat sariketean eder bat eratu dabe.

Zazpi urtetik amarrerakoak diran Bizkai'ko ume guztiak sartu leitekez ipuin-sariketara eta amaitatik amalaurakoak, idaz-lanctara.

Idazleak, berak nai dauan euskera erabilli al izango dau.

Aprillaren 11'n amaitzen da lanak bialtzeko epea.

Iru sari ipuiñetarako eta beste iru, bardiñak, idaz-lanctarako: Bizikletca, kasseta eta txistu ta tanbolliña. Eta beste sari asko.

Sarien banaketa, maiatzaren 14' an, Zine Astoria'ren aretoan.

Barriak jakiteko, deitu Deustu'ko ikastolara, Urrut. 4-4-9-2-8-4-9.